

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Gobernuak onetsitako beste gai batzuk

*Nabarmentzekoa da Babes Zibileko eta Larrialdien Atentziorako foru legearen berritzea*

Asteazkena, 2018.eko abenduak 19

### **Babes Zibilerako eta Larrialdien Atentziorako foru legea berritzeko akordioa**

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran Babes Zibileko eta Larrialdien Atentziorako, uztailaren 1eko, 8/2005 Foru Legea aldatzeko Laukoak aurkeztutako Foru Lege proposamena kontuan hartzea onartu du akordio bidez.

8/2005 Foru Legea indarrean izan den 13 urteetan atzemandako gabeziek eta egungo larrialdien gestio zein atentziora moldatzeko beharrak 8/2005 Foru Legea, uztailaren 9ko 17/2005 Babes Zibileko Sistema Nazionaleko Lege berrira moldatzeko beharra eragin du.

### **Iruñeko liburutegietako arduradunak mugi daitezke hiriburuko beste batzuetara**

Iruñeko liburutegietako arduradunak mugitu ahalko dira hiriburuko beste batzuetara. Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran onartutako akordioan aintzat hartzen da, 215/1985 Foru Dekretuaren modifikazio proiektua, dekretu horrek Administrazio Publikoetan lanpostuak betetzeko Araudia onartu zuen. Exekutiboak hartutako akordio honen ondoren, testua Nafarroako Kontseilura bidaliko da irizpena eman dezan.

Gogoratu beharra dago, aurreko araudiaren arabera, herri zehatz bateko liburutegietako langileak bakarrik mugi zitezkeela Nafarroako beste herri batzuetako liburutegietara.

### **Villafrancako herri-lurren 30.891m2 desafektatzea onartuta**

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran bi akordio onetsi ditu zeinaren arabera Villafrancako herri-lurren 30.891m2 desafektatzea onartu den "Transportes Maitxene S.L" enpresari uzteko. Helburua, abeltzaintza aktibitatea ezartzea da, hala nola ganadua behin behinean biltzeko zentroa eta behi, ardi, ahuntz eta zaldieen kontrolerako puntua eraikiz.

Hala, 23.904m2 abeltzaintza aktibitaterako bideratuko dira eta 6.987m2 ganadua aldi baterako jasotzeko zentroa sortzera. Bi kasuetan, 20 urteko epea izango du lagatzeak, eta urte horietan zehar enpresak Villafrancako Udalari hektarea bakoitzeko 301 euro gehi BEZ-a ordaindu beharko dio urteko tasa moduan.

### **Nafarroako Eskola Kontseiluko bokal bat izendatu da**

Nafarroako Gobernuak gaurko bilkuran akordio bat onartu du, zeinaren arabera Andoni Albéniz Bratos, Eskola Kontseiluko bokal izendatu dute, Hezkuntza Administrazioako ordezkari bezala.